

Sarrera | memoria · 2018-2019

Urteko Memoria honek planifikaziorako lanabes samur eta bizi bat izateko helburua du. Bertan Berritzeguneetako kideen norbanako eta lan-taldeen planak eta helburuak baloratzeaz gain hurrengo ikasturtea planifikatzeko orduan kontuan hartzekoak diren hainbat hausnarketa eta proposamen jasotzen dira. Urteko Planarekin egiten dugun bezala, eta Gasteizko bi Berritzeguneetako funtzionamendua zeharo koordinatuta dagoenez, esku-hartzeak, azpiegiturak eta oinarrizko zerbitzuak konpartituz, gure asmoa bi zentroen balorazioak **dokumentu bakarrean** jasotzea da.

Honi buruz gogoraztea helburu hirukoitzaren gidaritzapean, hau da: iraunkortasunarekiko gure begirunea adieraztea, Sare_hezuntza ildoaren planteamenduari egokitzea eta tresna baliagarria eta uneoro gaurkotua egoteko grina, memoria hau **on-line** aurkezten dela, ikastetxe guztiek erraz eskuratzeko moduan, eta, jakina, hezkuntza administrazio esparru desberdinen eta Berritzegune kide guztien eskura egoteko.


Proposatutako helburuen lorpen mailaz gain (lehentasunezko ildoetatik ateratakoak zein hobekuntza helburuetatik datozenak), memoria honetan ikastetxeetan gauzatu diren esku-hartzeen zein eskainitako formakuntza ekintzen balorazioak zehazten dira.

Halaber, nabarmendu nahiko genuke, nahiz eta izugarriko ahalegina egin den formakuntza aholkularitzen eta ikastetxe bakoitzeko hezkuntza bereziko erreferenteen artean koordinazio lanetan, agendak bateratzeko arazo larriak dituztela. Dena den, erantzun koordinatu eta testuinguratua emateko lanean jarritzen da, eskola inklusiboaren markoan. Koordinazio hau zehaztu da, lehenik ikasturte hasierako eta amaierako bisitak prestatzeko bilerak programatuz, non ikastetxe zehatzaren egoera eta “bidai orri” posiblea elkarrekin aztertzen den, eta ondoren, ikastetxean bertan pedagogia arduradunekin bilera komuma eginez. Gure iritziz, hiru aldeko bilera hauek, hau da ikastetxea, formakuntzako erreferentziarako aholkularitza eta hezkuntza premia berezietako erreferentziarako aholkularitza, erreferentziarako ikuskariaren parte hartzearekin osatu beharko lirateke.

Ikastetxeetan eginiko eskuhartzeei dagokienez, Berritzeguneetako **Aholkularitza Markoaren** egokitze-lanak eta zabalkuntza, **Prestakuntza eta Aholkularitza Moduloen** (PAM) bultzada eta PAM berrien elaborazioarekin batera, errebulsiboa izaten jarraitzen du du, bai laguntza zerbitzu hauen barne antolaketan, zein ikastetxeetan aholkularitza lanaren orientabidean. Informazio gehiago nahi izatekotan:

- [ArabaPrest proposamena | DC1020](#)
- [ArabaPrest proposamenaren garapena | DC1218](#)

Era berean, iaz gertatu zen eran, ikasketxe askotan aurretik planifikatuta zeuden Prestakuntza Ekimen Globala (PEG) moduluak, Berritzeguneetako eskaintzan dauden PAM moduluetara egokitu dituzte, hauetan larregi jasotzen baitziren Ekimen Globalaren edukiak.



PEG ekimenarekin jarraituz, ondoren hainbat dokumentu zehazten da, guztiak aipatuitako ekimen honek Arabako Lurraldean izan duen garapenari buruz:

- [VIa eranskina](#)
- [VIb eranskina](#)
- [Laburpen-txostena](#)
- [VIII. eranskina: zonaldeko txostena](#)

	1	2	3	4	5	6	7		
ABENDAÑO		●				●	●	Yolanda Arrese	
ADURTZA				●				Nuria González	+6 +7
ELCIEGO				●				Amaia Sesma	+6 +7
IBAIONDO				●				Mikel Fernández	
LAKUABIZKARRA		●		●		●	●	Ainhoa Odriozola	
LANDAZURI				●				Itziar Arana	+6 +7
LANTZIEGO						●		Mikel Fernández	
ELEJALDE				●				Mikel Fernández	+6
CERVANTES			●					Itziar Otaño	+4 +6
ODÓN APRAIZ	●							Yolanda Arrese	+6 +7
RAMÓN BAJO	●			●			●	Ainhoa Odriozola	+6 +7
SANTA MARÍA						●		Gorka Muñoz	+7
LOPE DE LARREA							●	Gorka Muñoz	
	2	2	1	7	-	4	4		

KOLDO MITXELENA	●							Aitor Santisteban	+4 +7
IES MURGUIA			●					Kike Clemente	+4 +6 +7
	1	-	1	-	-	-	-		

- Eginda baina oraindik ebidentziak jaso barik
- Egiteko ziren baina 2019-2020 ikasturterako uzten dira
- Eginda... eta 2019ko irailean? markatzeko

Eskola-Zuzendaritza esparruarekin lotutako alderdien prestakuntza espezifikoak Berritzegune Nagusiko taldeak ematen duela kontutan hartuta, hasierako prestakuntzaren bidez (zuzendaritza-talde berrientzat diseinatu eta eskaini zaizkienak) nahiz gaiaren inguruan antolatutako prestakuntza-jarduera anitzen bidez, A01 eta A02 Berritzeguneen Zuzendaritzaetik bi mintegi (EI-EP eta SEC) dinamizatu egin dira. Hauek helburu bikoitza izan zuten:

- Zentroei beren prestakuntza-ibilbidea ezartzen eta zentroetan Berritzeguneen esku-hartzea koordinatzen lagundu.
- Zuzendaritza taldeak gai desberdinei buruzko informatu edo/eta oinarritzko prestakuntza eman (elkarbizitza, gaitasunak, ebaluazioa ...), hauek norbere taldeak modu eraginkorrean koordinatu eta zuzendu ahal izan dezaten...

Bi mintegien baloratzea, ohikoa den bezala, oso ona izan da (8,5 EI-EP mintegian eta 8 BH mintegian) eta gure asmoa planteamendu honekin jarraitzea da.

⇒ [Ikusi Haur eta Lehen Hezkuntzako mintegien saioak](#)

⇒ [Ikusi Bigarren Hezkuntzako mintegien saioak](#)

Berritzeguneen eskuhartzeen ebaluazioa

Aurretik aipatu dugun bezala, memoria honetan aholkularitza desberdinek garatutako ekintzen balorazioak jasotzen dira, ikastetxeen Berritzeguneekiko asetze maila zehaztuz, formakuntza ekintzen parte-hartzaileen asetze maila, eta Berritzeguneetako aholkularitzen eta lantaldeen esku-hartze esanguratsuetan parte-hartzaileen asetze maila...

Atal bakoitzean eskeintzen diren datuak partzialak direnez, jarraian datu globalak ematen ditugu:

· *Esku-hartze esanguratsuen asetze-maila. DC2102a*

Ikasturte honetan **145** esku-hartze esanguratsu garatu dira, batz besteko asetze maila **8,16** izanik.

· *Ikastetxeetako asetze maila globala. DC2103*

Balorazio honek Berritzeguneek ikastetxe bakoitzean garatutako esku-hartze guztiak jasotzen ditu. Denak gainditzen dute ezarritako gutxiengoa, batz bestekoa **8,46** delarik.

· *Formakuntza ekintzetan parte-hartzaileen asetze maila. DC2206*

Balorazio honek Berritzeguneen formakuntza ekintzen programako ikastaro eta mintegiei erreferentzia egiten dio. **64** ekintza eskaini dira, eta **62** burutu dira azkenik. Hauen batezbestekoa **8,42** izan da, azpimarratuz nota altuenak Berritzeguneetako langileek eman dituztenak izan dituztela, aurreko urteetan bezala. Ez da egon inongo Ez Adostasunik.

· *Hezkuntza premia berezien arretari buruz...*

Azpimarratzea **826** diagnostiko egin direla, bakarrik **8** kasutan ezin izan da garaiz kasu egin. Halaber **307** ACI bete dira, eskatutako guztiak.

ASETZE MAILAREN HISTORIKOA

	Prestakuntza Ekintzak		Eskuhartze esanguratsuak ¹		Ikastetxeen asetze maila ²	
	kop/núm	nota	kop/núm	nota	kop/núm	nota
2011-2012	78	8,36	58	7,95	107	8,45
2012-2013	69	8,29	59	8,03	108	8,46
2013-2014	73	8,39	63	8,01	108	8,62
2014-2015	113	8,49	76	8,26	106	8,66
2015-2016	101	8,47	76	8,34	106	8,68
2016-2017	91	8,45	61	7,94	106	8,69
2017-2018	71	8,53	140	8,07	106	8,52
2018-2019	62	8,42	145	8,16	106	8,46

1. *Eskuhartze esanguratsuak* saio batzuek osatuta daude eta, duten garrantzia dela eta, ebaluatzen dira. Normalean «[arabaPrest](#)» eskaintzaren PAM baten garapenarekin lotura daukate

2. *Eskuhartze esanguratsu*, eskuhartze puntual, erreferentziako eskuhartze eta hpb-ekin lotutako eskuhartzeen batez bestekoa da, «Berritzeguneak.net» intrawebeko prozedurari jarraituz.